

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

Euskal Herrian bake prozesurik dagoen aztergai

Udako Ikastaroen sozio-politika saileko kideak gatazken konponbidez aritu ziren

Biarritzen izaten ari diren Udako Ikastaroetan gatazka politiko- en inguruko irtenbideak aztertu ziren atzo sozio-politika ikastaroan. Palestina eta Irlandako prozeduren azalpenak entzun ondoren, Euskal Herriak bizi duen egoera bake prozesatuz hartu litekeen hausnartu zuten ikasleek IPESko kideen laguntzaz.

Itzi LEKUONA | BIARRITZ

Txente Rekondo, Andoni Gorostiaga eta Mikel Jauregi IPES ikerketa sozialak lantzeko institutuaren nazioarteko arduradunek munduan zehar diren zenbait gatazka politiko mahai-gaineratu zituzten atzo Udako Ikastaroetan. Goizez, Palestina eta Irlandako herriek jasan dituzten egoerak azaldu zizkieten ikasleei eta arratsaldean, Euskal Herriari so egin zioten hausnarketa zabaldua pausatzearen.

IPESko kideen esanetan, gatazken konponbidea azaltzerakoan, «garrantzikoa da bi kontzeptu desberdintzea: Bake prozesua eta bakegintza prozedura. Lehendabizikoa, gatazkan inplikaturik diren bi aldeak mahai baten inguruan jartzen direnean, duintasunezko tratamendua jasotzen dute eta eztabaidaren ondorioz, beren proiektuak defendatzeko tresnek inpletzen dira. Bakegintza prozeduratan, aldiz, armak isildu egiten dira, gatazka erreakzioak ez dira ukitzen eta, azkenean, gatazka berpizteko arriskua dago», adierazi zuten.


Irlandan gertaturikoa eta gertatzen ari dena jarri zuten bake prozesu baten adibide gisa. Stormonteko hitzarmenaren ondotik, «alde bakoitzak bere proiektuak defendatzeko aukera» duela azaldu zuten IPESko kideek. «Palestina kasuan ez da gauza bera gertatzen. Gatazka dagoen lekuan denek duintasunezko tratamendua jaso behar dute eta han ez da hala pasatzen». Ikertzaile hauen ustez, bakegintza prozedura baten amaieran gaitzailak agertzen dira «eta duintasuna galtzen da. Alde bat kaltetuta ateratzen da eta arazoak berdin jarraitzen du. Hori gertatu zen Bosnia eta orain agian berdin pasatzen ari da Kosovon. Denborarekin gatazka sor liteke berriro, alde kaltetuta gerra kalte horretan legitimatzen baitu», azpimarratu zuten.

Euskal Herriko gatazka

Udako Ikastaroetan IPES institutu-ko lankide hauen metodologia dinamikoa da. «Azalpenak eman ondoren, ikasleek parte hartzea eskatzen dugu denon artean zenbait ondorio ateratzeko», adierazi zuten. Atzo goizez Palestina eta Irlandako gatazkek hitz egin ondoren, arratsaldean Euskal Herriaren egoeraz aritu ziren. «Guru ideia konparaketak bultzatzen da. Gatazka bakoitzaren irtenbidean zenbait giltzari izaten dira eta horren bidez, beste egoerekin alderatu liteke. Ez noski, proze-

sua errepikatuko, herrialde bakoitzak bere berezitasunak baititu, baina bai hainbat ikasgai atxikituko», nabarmendu zuten. Atzoko eztabaidaren ondoren ateratako ondorioen artean, bake prozesua eta bakegintza prozeduren nahasketarekin «kontuz ibili» behar dela azpimarratu zuten. «Ezin zaio bake prozesua edozer gauzari deitu eta prentsan askotan hori gertatzeko arriskua dago. Bestalde, argi dago Euskal Herriak berezko prozesua garatu behar duela, nahiz eta Lizarragarazi inguruko hausnarketak Stormont oinarritat hartu. Izan ere, ezin dira bi gatazka berdin tratatu eta gure herriaren egoeraren balio duten proposamenak besterik ez dira atxiki behar», gaineratu zuten.

IPESko adituen esanetan, Euskal Herriaren dinamika desberdin batzuk mugitzen hasiak diren arren, «goizez da hau bake prozesu bezala azaltzeko». Beste prozesuez ikasi eta «balizko arriskuez ohartu» beharra dagoela azpimarratu zuten Rekondok, Gorostiagak eta Jauregik.



Txente Rekondok Irlandako gatazka konpontzeko eman diren pauso historikoak azaldu zizkien ikasleei.

Harremanak eta komunikazioa garatu

Itzi LEKUONA | BIARRITZ

Biarritzko Hostalaritza eskolan ematen ari diren ikastaroen artean programazio neurolinguistikoa arakatsatu bihurtu da. Psikologiaren alorrean sarturik dagoen sail honek pertsonen arteko harremanak eta komunikazioa hobetzeko eta helburu, Eskola ho-

naileko teknikak beretziazak eta boteretsuak dira», Milleten esanetan komunikazioa ez da soilik solasaldi bat bezala ulertu behar. «Badiudi komunikazio bakarra hitzetzkoa dela eta hori ez da egia, komunikazioa mota asko baitaude».

Programazio neurolinguistikoa orain dela 20 urte hasi zen gara-

naileko teknikak beretziazak eta boteretsuak dira», Milleten esanetan komunikazioa ez da soilik solasaldi bat bezala ulertu behar. «Badiudi komunikazio bakarra hitzetzkoa dela eta hori ez da egia, komunikazioa mota asko baitaude».

Programazio neurolinguistikoa orain dela 20 urte hasi zen gara-

naileko teknikak beretziazak eta boteretsuak dira», Milleten esanetan komunikazioa ez da soilik solasaldi bat bezala ulertu behar. «Badiudi komunikazio bakarra hitzetzkoa dela eta hori ez da egia, komunikazioa mota asko baitaude».


Programazio neurolinguistikoa orain dela 20 urte hasi zen gara-

Txillardegi: «Elebakarren mitoak biluztu behar dira»

Itzi LEKUONA | BIARRITZ

Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegik, ikertzaile eta EHUKO irakasleak soziolinguistikaz bi ikastaro eskaini zituen atzo goizez. UEUKO kide honen esanetan, azkeneko urteotan euskara eta bere erabilera buruzko datuak bildu badira, oraineko egin beharra datu horiek interpretatzea da. Horretarako Txillardegik ezinbestekotzat jo zuen soziolinguistikoa matematikoki erabiltzea.

Metodo honen arabera «diagnosis egin dezakegu euskara zertan dagoen ikusteko. Hego Euskal Herriaren lau erordia egin dira azken urteotan eta datu horiekin kurbak egin liteke. Urteik urtera hizkuntzaren bilakera konparatu eta ondorioak ateratu ditzakegu», agertu zuen Txillardegik. Bere esanetan ondorioak bi mailatan sailkatzen dira: ezagupenera eta erabilpenaren mailan. «Bikoteak hirukote-



Txillardegik Ipar Euskal Herriaren euskara «likidazioa» dagoela agertu zuen.

ak edota taldeka euskarak zer-nolako erabilera duen ikusi dezakegu eta euskararekiko lehiatasuna zertan dagoen argitu dezakegu».

Orain arte, Hego Euskal Herriko datuen arabera, zenbait ondorioak ateratu litezkeela azaldu zuen EHUKO irakasleak. «Elebakarren mitoak biluzteko balio izan digu

gure metodoak eta hori gertatzea ezinbestekoa da. Izan ere, esan ohi da elebidunek inposaketa bat eragiten dutela hizkuntzarekiko eta hori ez da hala. Hemen eta bestelako herrialdeetan elebakarrak dira inposaketa egiten dutenak».

Txillardegiren arabera, ondorio horiek irakurketatik politikoa dutela esan

liteke, baina soziolinguistikoa bera politikoa da. «Hizkuntzaren inguruan irakurketa politikoak egiten dira eta azken finean hizkuntzen alde zerbait egiten dena atzo politikoki batengatik egiten da», esan zuen.

Gainera esan zuen, orain arte soziolinguistikoa «inpresioez» baliatu direla hizkuntzen egoera

azaltzeko, «ez baitzegoen daturik. Baina orain, datu asko ditugu inkestei esker eta sistematikoki aztertu behar ditugu. Orain beste fasean sartu gara, soziolinguistika matematikoaren fasean alegia», gaineratu zuen.

«Garaia da unibertsitateko jendearen artean metodo horiek serio-siki hartzeko, nahiz eta kritikatzen edo orratzatu, baina erabilgarri diren heinean onartuak izan behar dute», adierazi zuen.

Euskarak Ipar Euskal Herriko hiru herrialde euskaldunetan jasaten duen egoeraz, Txillardegik ezkor agertu zen. «Tamarit, Iparaldean ez da diagnosi matematikoaren beharrik, euskararen egoera oso txarra baita. Eta ez da exagerazio bat, euskara likidazioan baitago. Hemen ez badira gauzak aldatzen Euskara hila izango da». Aldaketa hau instituzioen eta politikoen esku dagoela azpimarratu zuen amaitu zuen Alvarez Enparantza adituak.